

Ostirala, 2013/08/23

Kronika.net

Argazkiak

Elkarrizketak

Jasota Bezala

Inkesta eta Eztabaida

Zerbitzu eta Helbideak

Agenda

Kronika Bereziak

Dokumentuak

Egin Bazkide

AURREKO EDIZIOAK

Aukeratu nahi duzun data

2013

abuztua

22

BILATU

Kronika Zaharrak

ARGITARATZAILEA



LAGUNTZAILEAK



KRONIKA.NET

ERGOBIKO FESTAK OSTIRALETIK ASTELEHENERA

Lau eguneko festa, Ergobin

Egun guztiak dute zerbait berezia: ostiralean, umeen eguna; larunbatean, Herri Krosa; igandean, Sagardo Eguna; eta astelehenean idi demak.

2013/08/21 - Asteazkena

izaera berezia dute ergobiko jaiak, eta horren adibide dira urtetik urtera festa giroan murgiltzera gerturazten diren astigartar eta hernaniarrak. ostiralean hasiko dira festak eta lau egunez, denentzako aukera izango da. umei zuzendutako eguna izango da aurrenekoa, ostirala. txupinazoa 17:00etan botako dute eta jolasak, txokolate jatea eta abar izango dituzte. oilasko jatea, demarako pisaketa eta gizon proba dira, aurreneko eguneko beste ekitaldiak. larunbata herri krosak markatuko du. eguneko aurreneko ekitaldia izango da, eta izena eman nahi dutenek www.kirolprobak.com orrian dute aukera. horrez gain, bazkari herrikoa, haurrentzako jokoak eta musika ere, ez dira faltako. igandea sagardoaren eguna izango da. 52garren lehiaketa izango da jokoan, 20 sagardogileren artean. arratsaldean harrijasotze erakustaldia antolatu dute; eta iluntzean zaldi dema. eta azkenik, astelehena izango da festetako beste egun potentea. idi demak jokatuko dira, goiz eta arratsalde. eta bazkari herrikoa eta auzotarren ikuskizuna ere antolatu dituzte, azken egunerako.

ostirala, umeen eguna

17:00, festen hasiera, ergobiko ereserkia abestuz. txupinazoa auzoko elkarte gosetienaren eskutik.

17:30, ume jolasak.

19:00, txokolate eta txurroak haurrentzako.

20:00, demetan parte hartuko duten idi eta zaldien pisaketa

21:30, oilasko jatea

23:30, zezen suzkoa

00:00, gizon proba. auzoko mutil taldea oriko heldu taldearen kontra. 900 kiloko harriarekin, 20 minutuan zeinek plaza gehiago egin.

01:30, dj bullekin musika

larunbata, herri krosa

10:30, vi kross herrikoa (xi bernardo arzallusen oroimena)

12:00, antzinako gizakien bizimodu erakustaldia. sua eta ehiza nola egiten zuten erakutsiko dute.

14:30, bazkari herrikoa. bixente soinujolea.

19:00, haurrentzako kantu eta jolasak plazan, urtxintxarekin.

23:30, zezen suzkoa plazan

00:00, musika jaialdia danba taldearen eskutik.

igandea, sagardo eguna

11:00, meza nagusia astigarragako elizan, auzoko hildakoen oroimenez.

11:30, lii sagardo lehiaketa.

18:00, herri kirolak. harri txikien harrijasotzaile onenen arteko txapelketa.

21:00, afaria plazako karpan. kostilla entsaladarekin.

23:30, zaldi proba paolla eta arrutiren artean.

BILATZAILEA

Idatzi bilaketa hitza(k)

BILATU

GAURKO KRONIKA



ARGAZKIAK



DIKUSI



astelehena, idi dema

12:00, xlix gran premio ergobia idi proba. telleria, matxain, izeta eta arzadun. lehenengo txandan, bi partehartzaile izango dira.

14:30, bazkari ofiziala.

17:00, txaranga, plazan

18:00, idi proben bigarren txanda

00:00, auzotarren ikuskizun paregabea, jaiei amaiera emateko.

 Zabaldu!

[Atzera egin](#) | [Inprimatu](#) | [Norbaiti bidali](#)



**Axeri
bila 2013**
klik hemen



**Liburua
erosteko,**
klik hemen



Ibilbide Sarea:
Urruzuno

XII. AXERI BILA
EMAITZA GUZTIAK

Ibilbide Sarea:
Larregain

Ibilbide Sarea:
Oberan

Ibilbide Sarea:
Usokori bira

Ibilbide Sarea:
Sagardotegiak

2013ko Martxoak 8 -
Udal Adierazpena

Parot doktrinari
buruzko mozioa

Saharako herriari
buruzko mozioa

Udal Baratzen araudi
orokorra

Gehigarria: Hemen

[web mapa](#) | [kontaktua](#)

THEMOVIE S.L.-k garatua, 2005